TXULO, 2004-8-6
459 zk.



# 150 urtez Gipuzkoako hiriburu





Idalak 1854ko abuztuaren 9an Espainiako ministroari ›idalitako agiria, Donostia hiriburu izenda zezan.

1854ko abuztuaren 23an izendatu zuten behin betiko Donostia Gipuzkoako hiriburu. Aurreko hamarkadetan, lehia gogorra izan zuten Donostiak eta Tolosak hiriburu izateko.

## 1821ean izendatu zuten Donostia lehen aldiz hiriburu

Raul Perez

Europa osoko ereduari jarraiki, Gipuzkoan ere toki-boterea zenbait hiri eta herriren artean txandakatu zen mende luzetan. XIX. mende hasiera arte Donostia, Tolosa, Azpeitia eta Azkoitia



## Urteurreneko erakusketa abenduan

Donostia hiriburu izendatu zuteneko 150. urtemugaren haritik, Udalak erakusketa antolatuko du abendu erdialdean San Telmo Museoan. Ereiten Kultur Zerbitzuak enpresa ari da erakusketa prestatzen. Ereiten-eko kide Larraitz Arretxeak azaldu dizkigu erakusketaren nondik norakoak: *"Oro har, XIX. mendeko Donostia eta Gipuzkoako gorabeherak azaldu nahi ditugu. Hau da, ez dugu erakusketa Donostia hiriburu izendatu zutenekora mugatu nahi. Besteak beste, telegrafoa eta trena Gipuzkoara iritsi ziren uneak gogora ekarri nahi ditugu, eta harresia bota zutenean Donostiak izandako bilakaera irudikatu nahi dugu"*. Erakusketarekin lotuta, bisita gidatuak izango dira. Bestetik, zortzi bat hitzaldi eskainiko dituzte. XIX. mendeko ekonomia, artea, arkitektura eta hirigintza izango dituzte hizpide hitzaldi hauetan. Liburu bat ere plazaratuko dute, San Telmon ikusgai jarritako irudiekin eta hitzaldietako edukinekin.

ferrikakoa izan zen. Abuztuaren 23an, Errege-dekretu batek Donostia Gipuzkoako hiriburu izendatu zuen. Handik hilabetera, Tolosako Udalak beste gutun bat bidali zion Gobernu Ministerioari. Batez ere, erabakia *"presaka"* hartu izana leporatu, eta *"zuzentzeko"* eskatu zion. Herritarrengana ere jo zuen Tolosako Udalak. Udal-bando bat helarazi zien tolosar guztiei. Bertan, Errege Dekretuak sortutako *"atsekabearen"* berri eman zuen, eta hiriburu izaten jarraitzeko emandako urratsak aipatu ziren.

Ondorengo hilabeteetan, edo urteetan hobe esanda, Donostia eta Tolosaren arteko tirabirek bere horretan jarraitu zuten.

## Mende luzez txanda sistema egon zen indarrean

Tolosako eta Donostiako Udalek Gobernu Ministerioari gutunak igortzen jarraitu zuten. Tolosarren asmoa berriz ere hiriburu bilakatzea zen; Donostiarrena, aldiz, hiriburu izaten jarraitzea. Eztabaidak eztabaida, 1854ko abuztuaren 23ko errege dekretuak ez zuen atzera bueltarik izan.



Gaur egungo Bulebarra harresiak bota ondoren eraiki zuten argazkian ikusten den lur sailean.

IRUTXULO Donostiako astekaria + GAZTETXULO Euskal Herriko gazteen hilabetekaria

Zure etxean jaso nahi badituzu deitu orain edo e-mailez zein faxez bidali: harpidetza@bagera.net

**Postaz bidali** Katalina Eleizegi 36 behea. 20009 Donostia

Izen-deiturak.......................................Telefonoa..................

Helbidea...................................... Herria............. Kodea...........

Irutxulo: ☐ 16 euro, BEZ barne
Gaztetxulo: ☐ 14 euro, BEZ barne
Irutxulo eta Gaztetxulo: ☐ 24,04 BEZ barne

Kontu Zenbakia: ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐ ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

Tel.: 943 457250 • Faxa 943 446532